

**Liderra da tokiko elikagaiak merkaturatzen**

**EROSKI-K %33 PASA IGO DU TOKIKO ELIKAGAIEN SALMENTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN JOAN DENEKO BI URTEAN**

- %38 pasa handitu da produktu freskoen salmenta Euskal Autonomia Erkidegoan
- Era berean, %10 handitu da hemengo haragiaren salmenta
- Denera jota, EROSKI 1.900 hornitzaileekin ari da lanean Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 650 milioi eurotik gorako erosketa egiten die urtero

**Elorrio, 2019ko martxoaren 15a.-** [EROSKI](#)k saltzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien salmentak %33 pasa igo dira joan deneko bi urtean. Hazkunde hori dela medio, kooperatiba behartuta dago tokian tokiko janarien alde sendo egitera, Zurekin eredu komertzialarekin ari den bezala, kontsumitzaileek estimatzen baitute.

Eredu horrek asko laguntzen du tokiko nekazaritzaren ekoizpen ehuna dibertsifikatzen, bai eta sektorea iraunarazten eta denda guztien ingurune hurbileko ekonomia, kultura eta paisaia indartzen ere. Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako elikagaien 300 ekoizle txikirekin dihardu EROSKIk 2.000 produktu baino gehiago saltzen. Erosketak egiten dizkie epe erdiko eta luzeko akordioen bitartez, eta horrek egonkortasuna dakarkio nekazaritzako elikagaien sektore iraunkor eta oso dibertsifikatu bati. Denera jota, EROSKI 1.900 hornitzaileekin ari da lanean Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 650 milioi eurotik gorako erosketa egiten die urteko.

*"EROSKIk proposamen espezializatu bat egiten die kontsumitzaileei janari freskoetan; izan ere, gure denden bereizgarri bihurtu da hori, tokian tokiko janari ekoizpenarekin batean. Kontsumitzaileak gero eta gehiago balioesten ditu bere ingurune hurbiletik datozen janariak, kalitate onekoa delako eta autoktonoa denarekin sentiberatasun handiagoa duelako",* esan du EROSKIren Tokiko Produktuen zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

Tokiko elikagai freskoen salmenta %38 handitu zaio EROSKIri 2016tik hona, eta elikagaiak epe berean ia %29. Hala, bost urte honetan, %33ko hazkundera izan du elikagaietan, eta tokian tokiko freskoak 2,17 bider handitu dira.

*"Kontsumitzaileek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote elikadura osasungarriari, eta, alde horretatik, funtsezkoak dira freskoen atalak. EROSKIren eredu komertzialak apustu indartsua egin du freskoen espezializazioaren alde,*

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*zertarako eta bezeroaren interes gero eta handiago hori gogobetetzeko. Horregatik, toki berezia eman die tokiko eta sasoiko produktuei", esan du Asun Bastidak.*

### **Igoera handienak harategian eta esnekietan**

Kooperatibak azken urteetan izan duen igoerarik handienetako bat harategian izan du. EROSKIk %57,61 igo ditu harategiko salmentak EAEn. Igoera horren oinarrian, bi alderdi nabarmendu behar dira: batetik, honako alde hauen akordioa egon da: [EROSKI](#), [HAZI Fundazioa](#), [Eusko Label](#)en erakunde ziurtatzailea, eta Harakai-Urkaiko kooperatiba, zeinaren bitartez Euskal Okela AGBak egiaztatutako behi haragiaren sustapena eta komertzializazioa bultzatzen baita *EROSKI Natur Euskal Okela* marka propioarekin, eta, bestetik, EROSKI SELEQTIAren barruan "km0" bereizgarriarekin saltzen hasi den haragi gama. Euskal Untxia ere saltzen du kooperatibak, Euskal Herriko Untxizainen Federazioarekin eginiko hitzarmenari esker.

Bi urte honetako beste igoera handi bat esnekiena izan da, hemengo esnekien salmenta %36,17 igo baita. Kooperatibak hitzarmenak ditu Karrantzako hogeita hamar bat abeltzainekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizten duten esnea saltzen du EROSKI markarekin, ekoizpenaren euskal jatorria ziurtatuta, zeinak Esne Produktu Iraunkorraren zigilua baitu. Era berean, joan deneko bost urtean, EROSKIk hirukoiztu egin ditu Idiazabal Gaztaren salmentak: bultzada hartu du euskal artzainen ardi latxaren esnearekin eskuz egindako gaztak, hitzarmena egin zuenetik Idiazabal Gaztaren Kontseilu Erregulatzailearekin eta Artzai-Gaztarekin.

### **Janari banatzaileetan lehena Euskal Autonomia Erkidegoan**

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien banaketan. 404 saltokiko sare komertziala du bertan; besteren artean, hipermerkatu eta supermerkatu propio nahiz frankiziatuak, eta dibertsifikazio dendak, baita on line supermerkatua ere. Hala berean, banatzaile bakarra da erosketak EAEko edozein etxetara eraman ditzakeena. EROSKI Clubek 770.000 Bezero Bazkide ditu erkidegoan.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)